

Gureak Araba



Gureak Araba 2001ean sortu zen eta, urteek aurrera egin ahala, ezintasunak dituzten enplegu eskatzaileentzako erreferente nagusi bilakatu da. Hasiara batean, bere egitekoa industriarako azpikontratazioak egitea izan bazen ere, azken urteotako egoera ekonomiko ezegonkorren ondorioz, zerbitzuen sektorean enplegu-aukera berriak bilatzeari ekin dio, talde honentzat etorkizuneko aukera berriak sortzeko helburuarekin.

Hain zuzen ere, 2005ean martxan jarritako orientazio-zerbitzu bat dauka, enplegua bilatzeko plan pertsonal bat eskaintzen duena. Eskatzaile bakoitzarekin banakako lana egiten da, hainbat arlo kontuan hartuta: motibazioa, lanerako prestakuntza, gaitasun sozialak eta komunikaziorako gaitasunak, lana bilatzeko teknikak edo curriculum profesionalaren hobekuntza.

Ezintasunak dituzten pertsonen lan-merkatu arruntean leku bat egiteko konpromisoa dauka elkarte honek, batetik, pertsona horien bizi-kalitatea indartzeko, eta, bestetik, gizarteari eta batez ere enpresen sareari pertsona horiek haien lanbide-profila garatzeko dituzten gaitasunak erakusteko.